



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2019/03/20

Batzar Nagusietako Osokoak aho batez onetsi dau garraioaren txartel bakarrari buruz partaidetzan oinarritutako azterlana aurton bertan egin daiala eskatzea Bizkaiko Foru Aldundiari

Gernikako Batzarretxean gaur alkartu dan Bizkaiko Batzar Nagusietako osokoak talde guztien aho bateko adostasunagaz onetsi dau 2018-2019 epealdirako Bizkaiko Garraio Publikoaren Plan Estrategikoari buruz egiten ari dan azterlanaren barruan, lurralde horretarako garraio txartel bakarraren eskumena, legetasuna, bideragarritasuna eta kostua aztertzeke atal espezifikoak sartzea eskatzen dauen Arauz Besteko Proposamena.

Proposamen horrek 2019ko urte hau jarten dau garraiorako txartel bakarraren azterlana bukatzeke epe moduan, eta kontuan izan beharko diran parametroak zehazten ditu: garraio modu guztien arteko aldaketak dobakoak izatea, progresibidadeke eredu guztiak aztertzea, prezioa errenta pertsonalera eta familiakora egokitzea eta gaur egungo garraio sarea, orokorrean, hobetzeko helburuak betetea. Arauz Besteko Proposamenak, azterlana egiteke orduan partaidetzan oinarritutako metodologia be ezarten dau, Bizkaiko garraio publikoaren erabiltzaileek, arlo horretan esanguratsuak diran kolektiboetako ordezkariak, garraio arloko adituek eta behargin teknikoek parte hartu daien.

Arauz Besteko Proposamena Euzko Abertzaleak, EH Bildu, Euskal Sozialistak eta Podemos Bizkaia taldeek aurkeztu dabe alkarregaz, zuzenketa-eske transakzionalaren bitartez, eta Bizkaiko Talde Popularra eta Talde Mistoa be alde agertu dira. Holan, aldeko 47 boto lortu ditu, Bizkaiko Batzar Nagusietako batzarkide guztienak, hain zuzen be.

Azkenean onetsi dan proposamena, Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeek txartel bakarraren alde batera aurkeztu daben Arauz Besteko Proposamenaren eta Euskal Sozialistak eta Euzko Abertzaleak taldeek aurkeztu daben zuzenketa-eskearen emaitzea izan da. Bizkaian garraiorako txartel bakarra lortzeke bidean aurrera egiteke helburu komunak, lau taldeak ados jartea eta gaurko osoko saioan zuzenketa-eske transakzionala aurkeztea lortu dau.

Arturo Aldecoak (Talde Mistoa) azpimarratu dauenez, “proposamen ona da, eta arrakasta lortu daian, ikuspegi teknikitik ondo pentsautu eta ekonomiaren aldetik ondo kalkulatu egin behar da”. Jesús Isasik (Bizkaiko Talde Popularra), azterlana “zorrotasunez eta seriotasunez” egin daitela eskatu dau, eta hainbat alderdi kontuan hartzea, “Bilboko Metroaren erabiltzaile nagusiak erdigunean bizi diranak dirala”, eta garraio mota guztiek ez dabela bardin kutsatzen, besteak beste.

Nuria Atienza (Podemos Bizkaia) ekimenaren alde agertu da, txartel bakarrak “garraio publikoaren bultzadan eta garapenean lagunduko leukelako, mobikortasun beharrak bermatuz eta ingurumena errespetatuz”. Eta, gehitu dauenez, ganera, “eskualdeen artean homogeneotasun eta bardintasun handiagoa lortuko litzateke, garraio maiztasun txikiagoak dituenetan, batez be”.

Ekain Ricok (Euskal Sozialistak), “danon onerako” akordioak eta adostasunak lortzearen garrantzia azpimarratu dau. “Oso pozik gagoz, holango akordio zabalak ez diralako oso ohikoak”, nabarmendu dau.

Bere taldearen izenean, Zigor Isuskizak esan dau txartel bakarria “gai gordianoa dala EH Bildurentzat, gai estrategikoa personen mobikortasunean”, eta, erabilten dan garraio publiko mota bat edo beste izatearen arabera ibilpide berberak egiteko tarifa desbardinak kobretea zuzendu beharra defendidu dau.

Unai Lermak (Euzko Abertzaleak) azpimarratu dauenez, “alkarren artean egindako beharrean oinarrituta, geure proposamena hobetzen dauen zuzenketa-eske transakzionalera heldu gara”. Lermak zehaztu dauenez, ekimenak, “Txartel Bakarria plataformak adierazi deuskuzan alderdiak” jasoten ditu. Garraiorako txartel bakarraren aldeko plataformako hainbat kidek Gernikako Batzarretxeko konbidauen jarlekuetatik jarraitu ditue eztabaidea eta bozketea, eta Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidentearen ondo etorria jaso dabe.

Arauk eta zuzenketa-eskeak

Gaur egin dan osoko saioan, lau Foru Arau onetsi dira, talde gehienen aldeko botoakaz. Gasa, Petrolioia eta Kondentsauak Erauztearen ganeko zergari buruzko Foru Araua Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak, Bizkaiko Talde Popularrak eta Talde Mistoa taldeen aldeko botoakaz onetsi da. Lauen artean 33 boto lortu ditue, Podemosek kontrako 4 boto emon ditu eta EH Bilduren 9ak abstentzinora joan dira. EH Bildu taldeak, fracking teknikea erabilia gasa erauzteari ezarten jakozan tasak nabarmen igotzeko zuzenketa-eskea aurkeztu dau, baina ez da onetsi, alde agertu diran bakarrak proposamena aurkeztu dauen taldea eta Podemos Bizkaia izan diralako.

Bozketaren emaitzea, joan dan martiaren 4an egin zan Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen bileran zuzenketa-eske horrek lortu eban berbera izan da. Bilera haretan gaur Osokoan eztabaidatu dan beste Foru Arau bat be aztertu eta bozkatu zan, Ondasun Higiezinaren Zergaren ganeko Foru Araua. Batzorde haretatik igaro ostean, Foru Arau horrek, martiaren 4an aho batez onetsi zan zuzenketa-eske bat jaso dau, gitxieneko %0,20eko eta gehieneko %0,80ko grabamena ezarteko Ezaugarri Bereziak daukiezan Ondasun Higiezinatarako. Arautegi barriak, landa izaerako eta uri izaerako ondasun higiezinaren katalogazino bikotxean ondo sartzen ez ziran instalazinoak, Bilboko Portua, parke eolikoak, aireportuak edo Petronor, beste batzuen artean, jasoten ditu. Guztira, 30 Udal inguru, horreen artean Muskiz, Bermeo, Barakaldo edo Bilbo, EBOH-BICES zerga hori kobretan hasi ahal izango dira.

Osokoan, hainbat taldek aurkeztu dituen hiru zuzenketa-eskeak eztabaidatu dira, aitatutako Foru Arauaren 3. artikulua aldatzeko. Artikulu horrek %50era arteko gainkarga ezarten dau Udalek jaubeei aplikau beharreko OGZn “zergadunaren edo alokairua edo erabileraren lagapena dala eta etxebizitza erabilera daukien eta hutsik dagozan etxebizitzetan”. Isun horretatik salbuetsita geratuko dira gizarte erabilerako etxebizitzak, batzordean onetsi zan moduan, indar politiko guztien aldeko botoagaz, Bizkaiko Talde Popularrarena izan ezik.

Javier Ruiz, azken alderdi horretako ordezkariak, gainkarga hori kentzea eskatzen eban zuzenketa-eskea defendidu dau, eta EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeek, barriz, zuzenketa-eske bitan, gainkarga OGZren kuota likidoaren %150era arte igotea eskatu dabe. Bizkaiko Talde Popularraren zuzenketa-eskeak talde horretako eta Talde Mistoko batzarkideen aldeko botoak baino ez ditu lortu, eta ganerako kide guztiek (44) kontra bozkatu dabe. EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeen zuzenketa-eskeek, barriz, kontrako 34 boto eta aldeko 14 jaso ditue, proposamenak aurkeztu dituen talde bietakoak. Zuzenketa-eskeak jaso dituen artikulua izan ezik, arauaren ganerako artikulua aho batez onetsi dira.

Ainara Aretxabaleta Euzko Abertzaleak taldeko batzarkideak, OGZren Foru Arauaren eztabaideaz baliauz, iragarpen bat egin dau: “Hau izango da Osoko batean izango dodan azkenengo esku-hartzea, azken 12 urteetan bizi izan dodan esperientzia pertsonal aberasgarriaren ostean”. Aretxabaleta batzarkideak bere taldearen konfiantzea eskertu dau eta parkamena eskatu deutso oposizinoari, “eztabaiden uneren batean baten bat mindu badot”.

Onetsi diran ganerako Foru Arauak, Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko Sailaren tasak arautzen dituana eta Irabazi asmorik bako erakundeen eta mezenasgoaren zerga pizgarrien araubide fiskalari buruzkoa izan dira. Lehenengoa, Podemos Bizkaia taldeak, nekazaritzan eta abeltzaintzan ari diran 18 eta 41 arteko gazteei tasak murrizteko proponidu dauen zuzenketa-eske biak sartu dituan zuzenketa-eske transakzionalagaz onetsi da. Talde berak aurkeztutako beste hiru zuzenketa-eske, barriz, ez dira onetsi. Zuzenketa-eske horreetan, orkatzaren ehizaren tasak handitzea eta 65 urtetik gorako pertsonak arrantzan eta ehizan egiteko daukien 0 euroko tasea kentzea eskatzen zan.

Joan dan martiaren 11an egin zan Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeko eztabaidan gertatu zan moduan, Irabazi asmorik bako erakundeen eta mezenasgoaren zerga pizgarrien araubide fiskal barriari buruzko eztabaidea luzea eta emonkorra izan da, Podemos Bizkaia taldeak aurkeztutako 36 zuzenketa-eske eta EH Bilduk proponidutako beste 25 eztabaidau diralako.

Zuzenketa-eske horreetako gehienak ez dira onetsi, baina azpimarratzekoa da Foru Arau barriak, talde guztiek (Euzko Abertzaleak, EH Bildu, Euskal Sozialistak, Podemos Bizkaia, Bizkaiko Talde Popularra eta Talde Mistoa) Podemos Bizkaia taldearen ekimenaren aurrean erakutsi daben aldeko eretxiari esker, lehentasunezko jardueren artean emakumeen eta gizonen arteko benetako bardintasunaren sustapena, indarkeria matxistea ezabatzea eta genero indarkeriaren biktimei laguntzea bilatzen dabenak sartzea jaso dauela.

Bukatzeko, Bizkaiko Batzar Nagusietako Osokoak argi berdea emon deutso Balio Erantsiaren ganeko Zergari buruzko zezeilaren 19ko 1/2019 Foru Dekretu Arauemoileari, UEFA Euro 2020ren azken fasearen araubide fiskala osotzen dauena. Arau jakin batzuetan Aldundiko araubidea Estadukora derrigorrez egokitu beharra jasoten dauen dekretu horrek Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak, Bizkaiko Talde Popularra eta Talde Mistoa taldeen aldeko 32 boto eta EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeen kontrako 14 boto jaso ditu.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
20/03/2019

El Pleno de las Juntas Generales aprueba por unanimidad instar a la Diputación de Bizkaia a la elaboración este mismo año de un estudio participativo sobre el billete único de transporte

Las Juntas Generales de Bizkaia, reunidas hoy en Pleno en la Casa de Juntas de Gernika, han respaldado con la unanimidad de todos los grupos políticos una Proposición No de Norma para instar a la Diputación a incorporar, al estudio que está elaborando sobre el Plan Estratégico del Transporte Público de Bizkaia 2018-2019, un apartado específico para analizar la competencia, viabilidad y coste del billete único para este territorio.

Esta propuesta fija de plazo este año, 2019, para la finalización de este estudio sobre el billete único de transporte y concreta los parámetros que deberá tener en cuenta: gratuidad de transbordos entre todos los modos de transporte, integración tarifaria, el estudio de todos los modelos de progresividad, adecuación del precio del billete a la renta personal o familiar y atención a los objetivos de mantener y mejorar de la red del transporte actual en su globalidad. La Proposición No de Norma establece también una metodología participativa en la elaboración de este estudio, en el que tomarán parte personas usuarias y no usuarias del transporte público en Bizkaia, representantes de colectivos significativos de este ámbito, expertos en transporte así como personal técnico.

La Proposición No de Norma ha sido presentada conjuntamente por Nacionalistas Vascos, EH Bildu, Socialistas Vascos y Podemos Bizkaia, vía enmienda transaccional, y ha recabado el apoyo de Grupo Popular Vizcaíno y Grupo Mixto, logrando así un total de 47 votos favorables, los del conjunto de apoderados y apoderadas de la Cámara Foral de Bizkaia.

La propuesta finalmente aprobada ha sido el resultado de la unión de una Proposición No de Norma inicial a favor del billete único presentada conjuntamente por EH Bildu y Podemos Bizkaia con una enmienda a esta PNN presentada por Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos. El objetivo común de avanzar en la consecución de un único billete para el transporte en Bizkaia ha logrado que los cuatro grupos se hayan puesto de acuerdo y hayan presentado esta enmienda de transacción a la sesión plenaria hoy.

Arturo Aldecoa (Grupo Mixto) ha destacado que “es una buena propuesta que para que tenga éxito tiene que estar bien pensada técnicamente y bien calculada económicamente”. Jesús Isasi (Grupo Popular Vizcaíno) ha pedido que el estudio se haga “con rigor y seriedad” y que se tengan en cuenta aspectos como que “los mayores usuarios del Metro Bilbao son los que viven en la zona centro” y que no todos los medios de transporte contaminan lo mismo.

Nuria Atienza (Podemos Bizkaia) ha defendido esta iniciativa porque el billete único “colaboraría en el impulso y desarrollo del transporte público, asegurando las necesidades de movilidad, así como el respeto al medioambiente”. Y ha añadido que se conseguiría además “una mayor homogeneidad e igualdad entre comarcas, sobre todo en aquellas que disponen de menores frecuencias de transporte”.

Ekain Rico (Socialistas Vascos) ha destacado la importancia de llegar a acuerdos y consensuar “por el bien común”. “Nos tenemos que congratular porque estos acuerdos tan amplios no son muy habituales”, ha subrayado.

En nombre de su grupo, Zigor Isuskiza ha calificado el billete único como “una cuestión gordiana para EH Bildu, un tema estratégico en la movilidad de las personas” y ha defendido la necesidad de corregir que se cobren tarifas distintas en los mismos trayectos, dependiendo del medio de transporte público utilizado.

Unai Lerma (Nacionalistas Vascos) ha destacado “del trabajo conjunto hemos llegado a una enmienda transaccional que mejora nuestra propia propuesta”. Lerma ha precisado que la iniciativa incluye “aspectos sobre los que nos ha alertado la plataforma Txartel Bakarra”. Varios miembros de esta plataforma a favor del billete único de transporte han seguido el debate y la votación desde la bancada de invitados de la Casa de Juntas de Gernika y han recibido la bienvenida de la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui.

Normas y enmiendas

En la sesión plenaria celebrada hoy, se han aprobado además cuatro Normas Forales con el apoyo de la mayoría de los grupos. La Norma Foral del Impuesto sobre la extracción de Gas, Petróleo y Condensados ha contado con los votos favorables de Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos, Grupo Popular Vizcaíno y Grupo Mixto, que han sumado un total de 33 votos, frente a los 4 votos negativos de Podemos y los 9 votos de EH Bildu, que se ha abstenido. EH Bildu ha presentado una enmienda para aumentar significativamente las tasas a la extracción de gas mediante la técnica de fracking, pero no ha sido aprobada al recabar sólo el apoyo del grupo proponente y de Podemos Bizkaia.

El resultado de la votación ha sido el mismo que obtuvo esta enmienda en la reunión de la Comisión de Economía y Hacienda del pasado 4 de marzo, día en que también se abordó el análisis y votación de otra Norma Foral que hoy se ha debatido en el Pleno, la del Impuesto de Bienes Inmuebles. Tras su paso por la citada comisión, esta Norma Foral ha incorporado una enmienda, que fue aprobada el 4 de marzo por unanimidad, para establecer un tipo de gravamen mínimo del 0,20 por 100 y un máximo del 0,80 por 100 para los Bienes inmuebles de Características Especiales (BICES). La nueva normativa ha introducido esta nueva categoría aplicable a instalaciones como el Puerto de Bilbao, los parques eólicos, los aeropuertos o Petronor y que no encajan bien en la anterior doble catalogación de bienes inmuebles de naturaleza rústica y de naturaleza urbana. En total, unos 30 ayuntamientos, entre los que se encuentran Muskiz, Bermeo, Barakaldo o Bilbao podrán empezar a cobrar este impuesto a BICES.

Durante el pleno se han debatido las tres enmiendas presentadas por diferentes grupos para modificar el artículo 3 de la citada Norma Foral, que establece un recargo de hasta el 50 por 100 sobre la cuota del IBI a aplicar por los Ayuntamientos a propietarios y propietarias de “bienes inmuebles de uso residencial que no constituyan la residencia de la o el sujeto pasivo o de terceras personas por arrendamiento o cesión de su uso”. De esta multa quedan exentas las viviendas de uso social, tal como se aprobó en comisión con el voto favorable de todas las fuerzas políticas, excepto el Grupo Popular Vizcaíno.

Javier Ruiz, representante de este último partido, ha defendido una enmienda que pedía la supresión de ese recargo, mientras EH Bildu y Podemos Bizkaia han solicitado, en sendas enmiendas, el aumento del recargo hasta el 150% de la cuota líquida del IBI. Las tres enmiendas han sido rechazadas, aunque con diferentes resultados.

La enmienda del Grupo Popular Vizcaíno sólo ha obtenido los votos favorables de sus propios junteros y del Grupo Mixto y los votos contrarios del resto de la Cámara (44), mientras que las enmiendas de EH Bildu y Podemos han recabado 34 votos en contra, frente a los 14 votos favorables, suma de los apoderados y las apoderadas de ambos grupos proponentes. Con excepción de los artículos contra los que se habían presentado enmiendas, el resto del articulado de la norma ha sido aprobado por unanimidad.

La juntera de Nacionalistas Vascos Ainara Aretxabaleta ha aprovechado el debate de la Norma Foral del IBI para anunciar que “ésta es mi última intervención en Pleno tras una experiencia personal enriquecedora de los últimos 12 años”. La apoderada Aretxabaleta ha agradecido la confianza a su grupo y ha pedido perdón a la oposición “si en algún momento en los debates les he podido ofender”.

Las siguientes Normas Forales respaldadas han sido las relativas a las tasas del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural y las del Régimen Fiscal de Entidades sin fines lucrativos y de los Incentivos Fiscales al Mecenazgo. La primera de ellas ha sido aprobada con una enmienda transaccional que ha incorporado dos enmiendas propuestas por Podemos Bizkaia para reducir las tasas a jóvenes de entre 18 y 41 años que se dediquen al sector agro-ganadero. Han sido rechazadas, en cambio, otras tres enmiendas presentadas por el mismo grupo, que pedían aumentar las tasas en la caza del corzo y eliminar las tasas de 0 euros de pesca y caza para personas mayores de 65 años.

Como ya ocurrió cuando se debatió en la Comisión de Economía y Hacienda del pasado 11 de marzo, el debate sobre la nueva norma tributaria a entidades sin ánimo de lucro y al mecenazgo ha sido largo y prolífico, al debatirse un total de 36 enmiendas presentadas por Podemos Bizkaia y otras 25, a propuesta de EH Bildu.

La gran mayoría de estas enmiendas han sido rechazadas pero hay que destacar que la nueva Norma Foral ha incorporado, -gracias al apoyo de todos los grupos (Nacionalistas Vascos, EH Bildu, Socialistas Vascos, Podemos Bizkaia, Grupo Popular Vizcaíno y Grupo Mixto) a una iniciativa de Podemos Bizkaia-, la inclusión entre las actividades prioritarias aquellas que persigan el fomento de la igualdad real de mujeres y hombres, la erradicación de la violencia machista y el apoyo a las víctimas de la violencia de género.

Por último, el Pleno de las Juntas Generales de Bizkaia ha dado luz verde al Decreto Foral Normativo 1/2019 del Impuesto del Valor Añadido y por el que se completa el régimen fiscal de la fase final de la UEFA Euro 2020. Este decreto, que incluye la obligatoria adecuación de la normativa foral a la del Estado en determinadas normas, ha obtenido 32 votos a favor de Nacionalistas Vascos, Socialista Vascos, Grupo Popular Vizcaíno y Grupo Mixto y 14 votos en contra de EH Bildu y Podemos Bizkaia.